



KANALAK:

Banaketa kanala

Gure banaketa kanala zeharkakoa izango da, aplikazio bat delako, eta Applestore eta Playstoren bitartez egingo dugu.

Komunikazio kanala

Gure eskariaren motorra gazteak izatea nahi dugu, beraz, gure gehienbat gazteengana iristeko komunikazio kanalak erabiliko ditugu. Argi daukagu gazteengandik jaio behar dela aplikazio hau edukitzeko nahia, familien eta erakunde publikoen babesa edukirik.

- **Sare sozialak** (instagram eta tik tok). Bi hauetan edukiko dugun kontuaren izena ondorengoa da: @lasaion_

Kontuan izanda gure bezero nagusiak gazteak direla eta hauek sare sozialak dituztela komunikabide nagusi, egokia iruditzen zaigu gure kanal nagusiak bide horreratz zuzentzea. Tiktok eta Instagram bezala. @lasaion_

Bertan Reels sistemaren bidez bideo motzak grabatuko ditugu non gure produktuaren informazioa komunikatuko den. Gainera, kartel itxurako irudiak ere zabalduko ditugu.

Bide hau baliatuz ere, zuzeneko transmisioak egin daitezke gure ideiatz jakiarazteko. Bertan, inkestak, erronkak... egingo ditugu gazte hauen inplikazioa areagotzeko.

Gaur egungo influencerrek ere funtsezko rol bat jokatuko lukete, hauek dira eta gazteen erreferente nagusia gaur egun. Esate baterako, @aquisandrax influenecr-a.

- **Irratia:** Iragarki motz bat ere sortuko dugu, gure produktuaren berri emango duena



- **Azalpen bideoak:** Azalpen bideo konkretuago bat sortuko dugu, produktuaren arrazoia eta erabilera ongi azaltzen dituenak. Honen helburua, eskoletan, udaletxeetan... erabiltzea da. Hu gure produktua horrelako erakundeei helarazteko erabiliko dugu.
- **Tailerrak:** Aurrean aipatutako erakunderen batek gure produktu premiuma gutxienez 100eko paketetan erosiz gero, tailer bat eskainiko diegu, gai honetan gehiago murgildu ahal izateko.
- **Webgunea:** gure aplikaziorako kanal zuzen bat izango da. bertan, informazioa eskuratzeaz gain, erosketa paketeak lortu ahalko dira.